

**Bilera mota:** Udal Osoko Bilkura Arrunta.

**Data:** 2015-05-21 (osteguna)

**Ordua:** arratsaldeko 18:30ean

**Lekua:** Udaletxeko Areto Nagusia

**Erreferentzia:** O-15-02

---

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko maiatzaren 19a  
Idazkari-kontuhartzailea

---

#### EGUNEKO GAI ZERRENDA

1.-Azkeneko Udal Osoko Bilkuretako akten onarpena zuzen irizten bada:

-O-15-01 (2015-02-23).

-E-15-01 (2015-03-09).

-E-15-02 (2015-04-07).

-E-15-03 (2015-04-27).

2.-Azkeneko Udal Osoko Bilkura Arruntetik aurrera Alkatetzak eman dituen Dekretuen berri ematea (R-15-027/R-15-088).

3.- "Ezkio-Itsasoko Herri Eskola 2. Fasea" proiektuko obrak "Construcciones Artzamendi S.A." enpresari esleitzea.

4.- 4 HJA "Itsaso"ko 4.2 E.U.ko a.10-4.2/1.a lursailaren salmenta esleitzea.

5.- "6 HJA-Ojarbideko ur zikinen saneamendu eranskinaren" proiektuko obrak "Sasoi Eraikuntzak S.L." enpresari esleitzea.

6.- "Itsasoko kaskoaren kudeaketa" "Mairama Restauración Sociedad Cooperativa" enpresari esleitzea.

7.- "Ezkio-Itsasoko Herri Eskola eraikineko ostalaritza hornigaiak" kontratatzeke Ekonomiko-Administratiboen baldintza plegua onartzea.

8.- Lehiaketaren bidez "Ezkio-Itsasoko Herri Eskola eraikineko ostalaritza zerbitzuen emakida" kontratatzeke Ekonomiko-Administratiboen baldintza plegua onartzea.

9.- Erregu eta galderak.

.....//.....

**0-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

## **2015EKO MAIATZAREN 21EKO UDAL OSOKO BILKURA ARRUNTA**

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko maiatzaren hogeita batean.

Egun honetako arratsaldeko 18:30ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta aldez aurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK)
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Ruth Idiakez Alberdi (EIK)

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzen:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

**2-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

**LEHEN PUNTUA:  
AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA ZUZEN  
IRIZTEN BADA:**

- O-15-01 (2015-02-23).
- E-15-01 (2015-03-09).
- E-15-02 (2015-04-07).
- E-15-03 (2015-04-27).

Ikusirik Udalkide guztiei bidali zaizkiela aipatuko den Udal Osoko Bilkurei dagozkien akta-minutak, Udal Osoko Bilkurak, aho batez,

**ERABAKI DU:**

**BAKARRA:**

Aurkeztu diren eran onartzea honako akta minutak:

- O-15-01 (2015-02-23).
- E-15-01 (2015-03-09).
- E-15-02 (2015-04-07).
- E-15-03 (2015-04-27).

**BIGARREN PUNTUA:  
AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURATIK AURRERA ALKATETZAK  
EMAN DITUEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-15-027/R-15-088 (zerrenda osoa aurkezten da).

.....//.....

**3-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

## **HIRUGARREN PUNTUA:**

**“EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLA 2. FASEA” PROIEKTUKO OBRAK  
“CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A.” ENPRESARI ESLEITZEA.**

## **IKUSIRIK:**

Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkurak, 2015ko apirilaren 27an eginiko ezohiko bileran, “EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLA 2. FASEA OBRAK” proiektuko obrak kontratatzeko Ekonomiko-Administratibo baldintza zehatzen Plegua onartu zuela, eta halaber prozedura martxan jartzea.

Prozedura motari dagokionez, publizitate gabeko negoziatu prozedura erabili zela, eta gonbidapena honako 3 enpresa hauei bidali zitzaizela:

CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A.  
CONSTRUCCIONES UGARTE S.L.  
JOSE MARIA SUKIA SLU.

Eskaintzak aurkezteko epea 2015eko maiatzaren 4an amaitu zela.

## **KONTUAN HARTUTA:**

2015eko maiatzaren 6an egin zela ekitaldi publikoa B) gutunazalak “ESKAINZA EKONOMIKOA” irekitzeko, eta honako hau izan zela emaitza:

CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A.- Aurrekontua: 240.075,98 euro (BEZ barne).

CONSTRUCCIONES UGARTE S.L.- Aurrekontua: 240.669,00 euro (BEZ barne).

JOSE MARIA SUKIA SLU.- Aurrekontua: 240.669,00 euro (BEZ barne).

Eskaintza ekonomikoena zenez, esleipen proposamena “CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A.” enpresaren alde egin ondoren, honek Pleguko 18. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu zuela.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

.....//.....

**4-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

## **ERABAKI DU:**

### **LEHENA:**

"EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLA 2. FASEA OBRAK" proiektua "CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A." enpresari esleitzea 240.075,98 eurotan (BEZ barne) kontratu administratiboa formalizatzeko errekerituz.

### **BIGARRENA:**

Esleipen honi buruz edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko ahalmena alkatea den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA:**

**"4 HJA "ITSASO"KO 4.2 E.U.KO a.10-4.2/1.a LURSAILAREN SALMENTA ESLEITZEA**

### **IKUSIRIK:**

Udal Osoko Bilkurak, 2015eko apirilaren 27an eginiko ezohiko batzarrean "Ezkio-Itsasoko Arau Subsidiarioetako 4 "Itsaso" H.E.A.-4.2 Gauzatzen Unitateko a.10-4.2/1 partzela dela eta, Birpartzelazio proiektuaren aldaketa gauzatu ondoren ateratzen den a.10-4.2/1.a lursaila inorenganatzeko" Ekonomiko-Administratibo baldintza zehatzen Plegua onartu zuela, eta halaber prozedura martxan jartzea.

Prozedura motari dagokionez, lehiaketa irekia erabili zela, eta iragarkia 2015eko maiatzaren 5ean argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (iragarkiaren kostua: 143,56 euro esleipendunaren kontua da).

Eskaintzak aurkezteko epea 2015eko maiatzaren 20an amaitu zela, eta eskaintza bakarra aurkeztu zela "ITSASOKO PLAZA S. COOP. DE VIVIENDA" elkartearena hain zuzen ere.

### **KONTUAN HARTUTA:**

.....//.....

**5-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

Kontratazio mahaia 2015eko apirilaren 30ean bildu, eta dokumentazioa zuzen zegoela adostu ondoren, esleipen proposamena egitea adostu zuela "ITSASOKO PLAZA S. COOP. DE VIVIENDA" elkartearen alde.

Eskritura publikoak sinatu ahal izateko, Birpartzelazio proiektua oraindik inskribatu gabe dagoela Azpeitiako Jabetzako Erregistroan.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

### **ERABAKI DU:**

#### **LEHENA:**

Aipaturiko lursailaren salmenta "ITSASOKO PLAZA S. COOP. DE VIVIENDA" elkarteari esleitzea 33.415,00 eurotan (BEZ aparte), eta baldintza honekin: Salmenta gauzatu ahal izateko, aldez aurretik Birpartzelazio proiektua inskribatuta egon beharko da Azpeitiako Jabetza Erregistroan.

#### **BIGARRENA:**

Esleipen honi buruz edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko ahalmena alkatea den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

#### **HIRUGARRENA:**

Erabaki honen edukina interesatuei jakinarazi, oharteraziz bide administratiboari amaiera ematen dion azaldutako behin-betiko erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. Eta 46. Artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen

.....//.....

**6-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116. eta 117. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

#### **BOSGARREN PUNTUA:**

**"6 HJA-OJARBIDEKO UR ZIKINEN SANEAMENDU ERANSKINAREN" PROIEKTUKO OBRAK "SASOI ERAIKUNTZAK S.L." ENPRESARI ESLEITZEA**

#### **IKUSIRIK:**

2015ko martxoaren 16ko R-15-051 Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez, **"6 HJA-OJARBIDEKO UR ZIKINEN SANEAMENDU ERANSKINAREN"** proiektuko obrak kontratatzeko Ekonomiko-Administratibo baldintza zehatzen Plegua onartu zela, eta halaber prozedura martxan jartzea.

Prozedura motari dagokionez, publizitate gabeko negoziatu prozedura erabili zela, eta gonbidapena honako 6 enpresa hauei bidali zitzaizela:

SASOI ERAIKUNTZAK S.L.  
LEKU-EDER,5 BAJO.  
31791.- SUNBILLA (NAFARROA).

URBYCOLAN S.L.  
MARTINDEGI BAILARA 6-CASA "AKAN BERRI"  
20120.-HERNANI

CONSTRUCCIONES PISUZAHAR-ELORGA S.L.

.....//.....

**7-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**



SAN MARTIN 14-2  
20700.- URRETXU

CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A.  
BURDIÑATE 5, BAJO  
20570.-BERGARA.

IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.  
KALE NAGUSIA-48  
20213.-IDIAZABAL.

CONSTRUCCIONES ETXAIDE S.A.  
ARABA ETORBIDEA BL 5 BAJO  
20400.-TOLOSA.

Eskaintzak aurkezteko epea 2015eko apirilaren 7an amaitu zela, eta epe barruan 3 eskaintza hauek aurkeztu zirela:

- Sasoi Eraikuntzak S.L.
- Construcciones Artzamendi S.A.
- Construcciones Etxaide S.A.

### **KONTUAN HARTUTA:**

2015eko apirilaren 16an egin zela ekitaldi publikoa B) gutunazalak "ESKAITZA EKONOMIKOA" irekitzeko, eta honako hau izan zela emaitza:

- Sasoi Eraikuntzak S.L.- Aurrekontua: 156.351,32 euro (BEZ barne).
- Construcciones Artzamendi S.A.: 218.696,53 euro (BEZ barne).
- Construcciones Etxaide S.A.: 346.431,50 euro (BEZ barne).

Eskaintza ekonomikoena zenez, esleipen organoak proposamena "SASOI ERAIKUNTZAK S.L." enpresaren alde egin ondoren, honek Pleguko 18. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu zuela.

Hori dena kontuan hartuta, gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

.....//.....

**8-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

## **ERABAKI DU:**

### **LEHENA:**

**“6 HJA-OJARBIDEKO UR ZIKINEN SANEAMENDU ERANSKINAREN”** proiektua “SASOI ERAIKUNTZAK S.L.” enpresari esleitzea 156.351,32 eurotan (BEZ barne) kontratu administratiboa formalizatzeko errekerituz.

### **BIGARRENA:**

Esleipen honi buruz edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko ahalmena alkatea den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

### **HIRUGARRENA:**

Erabaki honen edukina interesatuei jakinarazi, oharteraziz bide administratiboari amaiera ematen dion azaldutako behin-betiko erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. Eta 46. Artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen

azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116. eta 117. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

### **SEIGARREN PUNTUA:**

.....//.....

**9-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

**“ITSASOKO KASKOKO OSTATUAREN KUDEAKETA” “MAIRAMA RESTAURACION SOCIEDAD COOPERATIVA” ENPRESARI ESLEITZEA.**

**IKUSIRIK:**

Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkurak, 2015eko apirilaren 7an eginiko ezohiko bileran “ITSASOKO KASKOKO OSTATUKO ZERBITZUEN KUDEAKETA INTEGRALA ETA OSTATU HONETAN DAGOEN ETXEBIZITZAREN ERABILERA ETA GOZAMENA” kontratatzeko Ekonomiko-Administratibo baldintza zehatzen Plegua onartu zuela, eta halaber prozedura martxan jartzea.

Prozedura motari dagokionez, lehiaketa irekia erabili zela, eta iragarkia 2015eko apirilaren 14an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Eskaintzak aurkezteko epea 2015eko apirilaren 29an amaitu zela, eta eskaintza bakarra aurkeztu zela, “Mairama Restauracion Sociedad Cooperativa” enpresarena hain zuzen ere.

**KONTUAN HARTUTA:**

Kontratazio mahaia 2015eko apirilaren 30an bildu, eta dokumentazioa zuzen zegoela adostu ondoren, esleipen proposamena egitea adostu zuela “Mairama Restauracion Sociedad Cooperativa” enpresaren alde.

Esleipen proposamenarekin batera, “Mairama Restauracion Sociedad Cooperativa” enpresari, 22.6 artikuluan aurreikusitako dokumentazioa eskatu zitzaiola.

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

**ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:**

.....//.....

**10-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

"ITSASOKO KASKOKO OSTATUKO ZERBITZUEN KUDEAKETA INTEGRALA ETA OSTATU HONETAN DAGOEN ETXEBIZITZAREN ERABILERA ETA GOZAMENA"ren kontratazioa "Mairama Restauración Sociedad Cooperativa enpresari esleitzea hileko 355,00 euroko kanonarekin (BEZ barne) azpimarratuz interesatuak 15 laneguneko epea duela kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko, eta Aldizkari Ofizialeko publizitate gastuak ordaintzeko (79,54 euro).

#### **BIGARRENA:**

Esleipen honi buruz edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko ahalmena alkatea den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

#### **HIRUGARRENA:**

Erabaki honen edukina interesatuei jakinarazi, oharteraziz bide administratiboari amaiera ematen dion azaldutako behin-betiko erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. Eta 46. Artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen

azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeo errekurtsoa aurkez daitekeela ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116. eta 117. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

#### **ZAZPIGARREN PUNTUA:**

.....//.....

**11-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

**“EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLA ERAIKINEKO OSTALARITZA HORNIGAIK” KONTRATATZEKO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA.**

**IKUSIRIK:**

“Ezki-Itsasoko Herri Eskola” proiektua oso aurreratuta doala, eta Herri-Eskola eraikineko ostalaritza hornigaien kontratazioari ekin behar zaiola.

Prestatuta dagoela, obrak esleitzeko ekonomiko-administratiboen baldintza plegua, eta halaber hornigaien zerrenda

**KONTUAN HARTUTA:**

Prestatutako pleguak, besteak beste, ezaugarri hauek dituela:

- Kontratuaren xedea: “Ezki-Itsasoko Herri Eskola Eraikineko Ostalaritza Hornigaiak”
- Lizitaziorako oinarritzko prezioa: 58.125,00 euro ( BEZ aparte).
- Tramitazio mota: Publizitate gabeko negoziatu prozedura.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 2015eko ekainaren 11 arte.
- Aurrekontuan kontsignazioa: Bai 2015 ekitaldiko aurrekontuan.

Hori horrela izanik, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

**ERABAKI DU:**

**LEHENA:**

“Ezki-Itsasoko Herri Eskola Eraikineko Ostalaritza Hornigaien” kontratazioa onartzea, eta lizitazio prozedura abian jartzea aurkeztu den Ekonomiko-Administratibo Plegu zehatzaren arabera.

**BIGARRENA:**

Gonbidapena gutxienez inguruko 3 enpresari bidaltzea:

**ZORTZIGARREN PUNTUA:**

**LEHIAKETAREN BIDEZ “EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLA ERAIKINEKO OSTALARITZA ZERBITZUEN EMAKIDA”**

.....//.....

**12-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

## **KONTRATATZEKO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA**

### **IKUSIRIK:**

Aurreko prozesua hutsik geratu ondoren, lehiaketa irekia bitartez Itsasoko Kaskoko Ostatuko zerbitzuen kudeaketa integrala eta Ostatu horretan dagoen etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleitzeko prozedura martxan jarri nahi dela.

Dagoeneko prestatuta dagoela, esleipena egiteko ekonomiko-administratiboen baldintza plegua.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Prestatutako pleguak, besteak beste, ezaugarri hauek dituela:

- Kontratuaren xedea: Lehiaketa irekia bitartez Itsasoko Kaskoko Ostatuko zerbitzuen kudeaketa integrala eta Ostatu horretan dagoen etxebizitzaren erabilera eta gozamina.
- Licitaziorako oinarrizko prezioa: Hileko 350,00euro ( BEZ barne), hobetu egin beharko da prezio hau.
- Kontratuaren iraupena: 2 urtekoa izango da, eta 10 urte osatu arte luzatu ahal izango da.
- Eskaintzak aurkezteko epea: hamabost egun naturalak, lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- Esleipen organoa: Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkura.

Hori horrela izanik, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **BAKARRA:**

Aurkeztutako Ekonomiko-Administratiboen baldintza plegua onartzea, eta lizitazio prozedura abian jartzea.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA: ERREGU ETA GALDERAK.**

.....//.....

**13-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

Azken Ohiko Udal Osoko Bilkura denez, alkate jaunak eskerrak eman dizkie egin duen lanagatik jarraituko ez duten zinegotziei.

Beterik deialdiaren helburua, 19:30ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko maiatzaren 21a

O.E.  
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....

**14-0-15-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA**